

2022/2023ko JARDUERA PLANA
GIPUZKOAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDETZA

1	SARRERA.....	2
2	CAMPUSAREN ANTOLAKETA EREDUA.....	3
3	AZPIEGITURAK ETA BALIABIDEAK.....	3
4	EKINTZAILETZA ETA TRANSFERENTZIA.....	4
5	IKASLERIAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA KIROLLEN ARLOA	5
6	EUSKARA ETA KULTURA	6
7	ESPERIENTZIA GELAK.....	8

1 SARRERA

Iragandako bi ikasturteetan bereziki ikusi eta ikasi dugu ziurgabetasun handi baten erdian gaudela eta etengabeko aldaketa-prozesu honetan Unibertsitatea erdigunean dagoela. Aldaketa hauei duintasunez erantzutea guztion ardua den arren, bere izaeragatik, Unibertsitate publikoak badu aparteko erantzukizun bat. Zalantzez betetako etorkizun ilun honetan gure Unibertsitatea gai izan da gizarteak zeuzkan hainbat galderei erantzuteko eta hauek sortzen zuten egonezina apur bat baretzeko.

Ziurgabetasun egoeran aurrera egiteko, talde honentzat aparteko balioa du Unibertsitateko kolektibo guztiekin elkarlanean aritzea. Hausnarketa partekatatu batetik hasi eta, dauden baliabideak kontuan hartuz, irtenbide adostuak proposatzen saiatuko gara, beti ere Unibertsitatearen aniztasuna kontuan hartuz.

Zentzu horretan, ikasturte honetan ere, Campus inklusibo bat lortzen saiatuko gara norbanakoen izaera eta iritziak errespetatuz, eta lan egiteko eta ikasteko espazio atsegin eta egokiagoak lortuz.

Aurtengo ikasturtean aparteko garrantzia eman nahi diogu Campuseko ikastegietako dekanotza eta zuzendaritzek, EHUko ikerketaren emaitzak eskualdatzeko bulegoak (IEEB) eta Euskampus Fundazioaren artean egin den hausnarketa estrategikoari.

Askotan esaten dugu Campusean hiru belaunaldietako pertsonak nahasten garela, ikasle gazteenetatik hasi (18 urte ingurukoak) eta ikasle helduenetara (81 urte ingurukoak). Aberastasun hau kontuan hartuz, belaunaldi hauen arteko zubiak eraikitzen laguntzen ari den "Etorkizuna Eraikiz Foroa" ekimenarekin jarraituko dugu.

Kultur arloan, orain arteko ekimen ezberdinak mantentzeaz gain, inguruko kultur agente ezberdinekin harremanak sendotuz joango gara.

Kirol eskaintzari dagokionez, aparteko esfortzua egingo da Campusean ikasi eta lan egiten duten pertsonen ohiturak, pixkanaka, aldatzen joan daitezten eta era osasuntsuago batean bizitzen ikasi dezaten.

Campusa, orokorrean, gaztea dela esaten dugu baina bertan kokatuak dauden hainbat eraikin zahartzen hasiak dira eta, ondorioz, geroz eta mantentze-gastu handiagoa behar dute. Hemen ere esfortzu berezia egingo dugu ikastegi eta zentro ezberdinek gaur egun eskaintzen dituzten zerbitzuak mantendu eta, ahal bada, hobetu ditzaten.

Ekintzailtza eta transferentziaren arloan, Campusean dauden ekimen eta dinamika ezberdinak indartzeaz gain, estrategia berri bat martxan jarri da.

Guzti hau gauzatzeko beharrezkoa izaten jarraitzen du Gipuzkoako Campuseko Unibertsitate-kide guztien inplikazioak. Eginbehar honetan arduraldia eta inplikazioa ez dira faltako, eta hauei esker erronka berriei aurre egiteko gai izan gara.

2 CAMPUSAREN ANTOLAKETA ETA HARREMANAK

- 2.1 Campuseko Batzarraren kide diren kolektibo ezberdinen parte hartzea sustatu.
- 2.2 Errektoreordetza eta Zuzendaritza ezberdinen arteko komunikazio bideak sustatu eta indartu, Gipuzkoako Campusaren eskumenak diren gaietan elkarlana egin ahal izateko.
- 2.3 Errektoreordetzaren Zuzendaritza taldeak, Campuseko ikastegi ezberdinetara egiten dituen bisitekin jarraituko du ikastegietako zuzendaritza taldeekin elkarlanean aritzeko asmotan.
- 2.4 Errektoreordetzaren Zuzendaritza taldeak, Campuseko ikasleen ordezkariekin komunikazio bideak sendotzen jarraituko du, Ikasleen Kontseiluaren bitartez.
- 2.5 Campuseko Batzarrean, Errektoreordetzaren zuzendaritza ezberdinen jarduerari buruzko informazioa eta eztabaida sustatzea.
- 2.6 EHU 2030 Gipuzkoa Proiektua garatu.

3 AZPIEGITURAK ETA BALIABIDEAK

- 3.1 IKERBASQUE lagundu, Joxe Mari Korta zentroko II. faseko obrak egiten ari diren bitartean.
- 3.2 Ikasle-egoitza berriak eraikitzeke aukerak aztertu.
- 3.3 Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak planteatutako beharretatik abiatuta, lehiaketa publikoaren bidez, proiektu baten kontratazioa eta obren lizitazioa bideratzeko baliagarria izango den proiektu baten kontratazioa.
- 3.4 Campuseko eraikin eta instalazio azpiegituren plana garatu, ezarritako lehentasunen eta aurrekontuen arabera. Erabiltzaileen segurtasuna, irisgarritasuna eta energia hobetzeko neurriak sustatuko dira.
- 3.5 Prebentzio Zerbitzuak eguneratuko duen eraikinen arriskuen ebaluazioa aztertu eta eraikin eta zentroetako arduradunekin bilerak egin lehentasunak finkatzeko.
- 3.6 Prebentzio Zerbitzuaren lankidetzarekin simulakroak egin Errektoreordetzako eraikinetan.

4 EKINTZAILETZA ETA TRANSFERENTZIA

4.1 Ekintzailletza

4.1.1 Ikasle eta irakasle-ikerlarien artean kultura ekintzailea sustatu

- ✓ Campuseko zentro ezberdinetan ikasleekin ekintzailletzaren inguruko jarduerak antolatu, bereziki Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokaturiko ekintzailletza sustatuz.

4.1.2 Campuseko enpresa proiektuak bultzatzeko laguntza-programak aurrera eraman. Programa hauetatik laguntza ekonomikoak, sariak eta beka antolatu.

- ✓ Entreprenari Programaren bidez ikasle eta irakasle-ikerlarien enpresa proiektuak aholkatu.
- ✓ Campuseko ikerkuntza taldeetako *spin-off*-en balorizazioak egin finantziarioa lortzeko laguntza eman.
- ✓ XXI Manuel **Laborde Werlinden** Sariak antolatu bi kategoria barneratuz: "Gradu Amaierako Lan, Master Amaierako Lan eta Doktorego Tesi ekintzaileak" eta "Ekimen Berritzaile Berriak" kategoriak.
- ✓ UPV/EHU Gazte Ekintzailletzarako Beken VI deialdiaren kudeatu eta honi lotutako formakuntza antolatu. Horretaz gain, Gipuzkoako campusera loturik dauden proiektuen jarraipena egin, eta bekadunei proiektuarekin aurrera jarraitzeko baliabideak aurkeztu.

4.1.3 Campuseko eta Unibertsitateko Ekintzailletza Planak

- ✓ gEHU Ekintzaile plana garatu kanpoko erakundeekin ditugun hitzarmenez baliatuz.
- ✓ Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordetzarekin i2i (*Idea to Impact*) proiektua aurrera eraman.

4.2 Transferentzia

4.2.1 Inguruko erakundeekin harremana sendotu

- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz ereduaren parte hartze aktiboa izan. Etorkizuna Eraikiz hitzarmenaren esparruan sortutako proiektuak bultzatu, Foru Aldundiko zuzendariekin harremana indartu, Etorkizuna Eraikiz **Think Tank** gunean parte hartu, Etorkizuna Eraikiz Nazioarteko

Kongresuaren antolakuntzan lan egin eta Etorkizuna Eraikiz Foroa antolatzen jarraitu.

- ✓ Gipuzkoako enpresa eta enpresa erakundeekin harremana indartu.
- ✓ Donostiako Udalarekin indarrean dagoen hitzarmena garatu.
- ✓ Donostiako Estrategia Bulegoaren Gizarte Kontseiluan eta Plan Estrategikoaren Lan Batzordean parte hartu.

4.2.2 Unibertsitate-enpresa gelen sarea sendotu eta zabaltzea

- ✓ Unibertsitate-enpresa gela berriak sortzeko laguntza eskaini.
- ✓ Zentro ezberdinetako unibertsitate-enpresa gelen arteko harremana sustatzea.
- ✓ Gipuzkoako Campuseko Tecnalía enpresa-gelaren kudeaketa jarraitu.
- ✓ Lurraldeko enpresa txiki eta ertainei laguntzeko campus mailako berrikuntza irekiaren inguruko unibertsitate enpresa gela bat sortu.

4.2.3 Zientziaren dibulgazioa gizartean areagotu

- ✓ Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetzarekin Zientzia Astea antolatu, 2022ko edizioan aurrez aurreko jarduera guztiak berreskuratuz.

4.3 Enplegarritasuna

- ✓ Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordetzarekin elkarlanean 2023 urtean Gipuzkoako Campuseko Enplegu Foroa antolatzea.

5 IKASLEEN, MUGIKORTASUNAREN ETA KIROLLEN ARLOA

5.1 IKASLEAK

5.1.1 Landa-praktika egiteko diru-laguntzak eman.

5.1.2 Ikasleriaren parte hartzea Campusean sustatu.

5.1.3 Ostatuaren aukera ezberdinak bultzatu.

5.1.4 Graduazio ekitaldi jarduera antolatzeko ikastegi eta ikastegietako atalei zuzenduriko diru-laguntzak.

5.1.5 Gradu ezberdinetako ikasle onenen eta espediente bikainen aitortza-ekitaldia antolatu.

5.1.6 EGOKITU programaren V edizioa antolatu.

5.1.7 Gipuzkoako eskualdeetara UPV/EHUren eskaintza akademikoa azaltzeko hitzaldiak egin, ikasle potentzialengana hurbiltzeko.

5.1.8 UPV/EHUri buruzko informazio-jardunaldi ezberdinetan parte hartu.

5.1.9. Datorren 2023ko azaroaren 4an gauzatuko den graduazio ekitaldi bateratua antolatu, Gipuzkoako Campuseko ikastegi guztiekin batera.

5.2 KIROLA

5.2.1 Kirol probak eta txapelketak antolatu eta bertan parte hartu

5.2.2 Kirol Ikastaroak eta jarduerak antolatu

5.2.3 Jarduera fisikoa sustatu eta ohitura osasuntsuak sustatu.

5.3 MUGIKORTASUNA ETA CAMPUS IRAUNKORRA

5.3.1 Mugikortasuna

5.3.2 Elkarre Zientifikoetako zuzendaritza postuetan parte hartzearen laguntzak eman, mugikortasuna sustatuz.

5.3.3 Biltzar Zientifikoetan parte hartzeko laguntzak eman, mugikortasuna sustatzeko.

5.4 ELEANIZTASUNA- IKASTAROAK (INGELES ETA FRANTSES)

5.4.1 Ikertzaile ez egonkorrei zuzendutako ikastaroak (Ingelesa)

5.4.2 Oinarrizko hizkuntza ikastaroak (Frantsesa)

6 EUSKARA ETA KULTURA

- 6.1 Unibertsitateko bizitzako esparru guztietan euskararen erabilera areagotuko duen dinamika sustatzea.
 - 6.1.1 Bikain ziurtagiriaren eskaeraren prozedurarekin jarraitu eta egin beharreko hobekuntzei ekin.
 - 6.1.2 Euskara astean, Campuseko ikastegien parte hartzea eta koordinazioa sustatzea.
- 6.2 Euskara tekniko-zientifikoaren zabalkundea eta erabilera sustatzen duten ekimenak bultzatzea.
- 6.3 Euskarazko irakaskuntza-materiala sortu, egokitu eta zabaltzen laguntzea.
- 6.4 Unibertsitateko kide bakarreko zein kide anitzeko organoen bileretan euskararen erabilera sustatzea.
- 6.5 Kultura-hedapeneko jarduerak bultzatzea.
 - 6.5.1 Campuskideen parte hartzea kultura ekimenetan ahalbidetzea. "Jauzi Handia III: Bizikidetzarako trebeziak" programa lantzea, Gradu ezberdinetako ikasleekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean.
 - 6.5.2 EHUkultura Gipuzkoa programaren diseinua eta garapena: literatura-lehiaketak, sormen-tailerrak, Txillardegi areto eta Barriolako ikasgelategian erakusketak, antzerkia, literatura-solasaldiak. Aurten, hilabete bakoitzeko azken ostegunean, ikuskizun bat antolatuko da.
 - 6.5.3 Gipuzkoako Campusean sorkuntza artistikoarekin lotutako ikastetxeetako pertsonen (ikasleak eta irakasleak) elkarreragina indartzea: Zinea eta emozioak lan taldea (Informatika, HEFA, EQZE).
 - 6.5.4 Gipuzkoako campusean hitzaldiak, kongresuak, jardunaldiak eta beste unibertsitate hedakuntzako ekintzak burutzeko diru-laguntzak.
 - 6.5.5 Inguruneko kulturaren funtsezkoak diren eragileekin lankidetzahitzarmenak bultzatzea (Tabakalera, EQZE, Donostiako Udala, San Telmo Museoa, HEIZE).
 - 6.5.6 Unibertsitateko sareak aberasten dituzten kultura-elkarteekin lankidetzahitzarmenak bultzatzea (Gipuzkoako Artisten elkarte).
 - 6.5.7 Campusean unibertsitate-proiektzioko ekimenak sustatzea (kongresuak, mintegiak, tailerrak, ikastaroak eta jardunaldiak), laguntzak emateko deialdiaren bidez.
 - 6.5.8 2022an 18 urte betetzen dituzten ikasleei kultura bonoa eskuratzeko laguntza eskaini.
- 6.6 Unibertsitateko irudia zabaltzeko jarduerak.
 - 6.6.1 UPV/EHU - Donostiako XXII Orfeoi Saria.
 - 6.6.2 Oihenart Aforismoen literatura lehiaketaren antolakuntzan laguntzea.
 - 6.6.3 Elkano V. Urteurrenarekin lotutako kultura ekimenak kudeatzea.
 - 6.6.4 Euskal Idazleen Elkartearekin liburuaren eguna antolatzea.

- 6.7. Beste bi Campusetako euskara eta kultura zuzendariekin komunikazioa eta elkarreragina indartzea.

Webgunearen bateratzean parte hartu.

7 ESPERIENZIA GELAK

- 7.1 Esperientzia gelen formakuntza eskaintza berrikustea, gizartearen eskariari erantzunez.
- 7.2 UPV/EHUko hiru Esperientzia Geletako zuzendaritza eta ikasleriaren arteko elkarlana suspertu,.
- 7.3 Esperientzia Geletako ikasleen eta graduiko ikasleen arteko belaunaldien arteko loturak sendotzea.
- 7.4 AEPUM (Asociación Española de Programas Universitarios para mayores) elkarteko mintegi eta topaketetan parte hartu.
- 7.5 Esperientzia geletan kultura-jardueraren eta unibertsitate-ikerketaren dibulgazioa sustatzea.